

# Donostian, 2009ko azaroaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario,  
Arejita, Adolfo,  
Azkarate, Miren,  
Charriton, Pierre,  
Davant, Jean-Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Larre, Emile,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Salaberri, Patxi,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola, Ibon,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi,  
Videgain, Xarles eta  
Zabaleta, Patxi euskaltzainak  
Telleria, Pello, idazkariordea.

Ezin etorriak eta ahalak: Beñat Oihartzabalek, ahala Xarles Videgaini; Joan Mari Torreldaik, ahala Andoni Sagar-nari; Aurelia Arkotxak, ahala Jean Haritschelharri; Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidetik, ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiko Batzar-aretoan, ezkerreko zutabe-bera ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Aurreko akta onartzea.** Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

## **2. Hilberriak.**

**2.1. Juan Jose Zearretaren heriotza.** Juan Jose Zearreta Urigoitialekozea euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren kudeatzailea, azaroaren 7an automobil-istripuz hil zela eta, aktan Euskaltzaindiaren dolumina konstaraztea erabaki da, bai eta, haren

heriotza dela eta, familiari domuinak helaraztea, eta jasoriko atsekabe-adierazpen guztiengatik eskerrak ematea.

**2.2. J. M. Makatzagaren emaztea hil da.** Jesus Mari Makatzaga euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordearen idazkariaren emaztea, Ascensión Nuñez andrea, azaroaren 11n hil zen. Euskaltzaindiak bere doluminak bidali dizkio, bai eta Jesus Mari Makatzagaren eskerrak jaso ere.

### 3. Sariak

**3.1. J. L. Davant eta J.M. Torrealdai sarituak.** Euskaltzaindiak, halaber, jaso berri dituzten sariengatik, bere zorionak eman dizkie, alde batetik J.L. Davanti (*Nabarralde* saria) eta, bestetik, J. M. Torrealdairi (*Dabilen Elea* saria, Euskal Liburugintzaren arloko lau elkartek emana).

**3.2. Jose Maria Muñoa Ganuza jaunaren omenaldia.** Era berean, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, eguerdiko 12etan, Jose Maria Muñoa jaunari Europako Parlamentuaren *Civi Europaeo Praemium*, hots, Europako Hiritarraren saria eman zaio. Euskaltzaindiaren batzarraren atsedeen-etenaldian, euskaltzainek bera agurtu eta zorionak ematera joateko aukera izan dute.

### 4. Exonomastika

#### 4.1. Europako ibaiak

Aurreko batzarrean «Europako toponimia. Europako ibaiak» zerrenda aurkeztu zen. Horri J. Haritschelharrek ohar bat egin dio, *Jenisei* ibaiaren ortografia (hasierako *J-*) hegoaldeko euskaldunei nahasgarria gerta dakiekeelakoan, eta *lenisei* idaztea hobe litzatekeela. J.L. Lizundiak eta X. Kintanak erantzun diote, eta, bere kezka ulertuz, ondokoa gogoratu diote: errusiar alfabetoko letra batzuk euskarara aldatzean *j* grafemari Euskaltzaindiak eman dion balio hobetsia Bizkaiaren mendebaldeko, Nafarroako eta Iparraldeko euskalkiena dela, hots, espainiera edo frantsesaren *y* (*yate*, *yogur*, *yatagán*...) eta ez espainerazko *j*-rena (*jabón*, *José*, *Jerez*).

Batzordeak, bestalde, autozuzenketa eginez, erdarazko *gave* hitzerako (*Gave d'Oloron*, *Gave de Pau*), Zuberoako *uhaitza* erabiltzea erabaki du, hots, Pirinioetatik heltzen diren ur korronteak, maiz elur urtzearen edo euriteen ondorio izaten direnak aipatzeko. Ontzat eman da kasu horretan *uhaitz* hitza erabiltzea.

#### 4.2. Europako aintzirak

Ondoren, Europako ibaien zerrenda aurkeztu da. Oharrak egiteko euskaltzainek abenduaren 11ra arteko epea izango dute. P. Goenagak jakin nahi luke ea zergatik

kasu batzuetan izen propioaren ondoan *aintzira* jartzen den eta beste batzuetan ez. J.L. Lizundiak azaldu dio, eta *aintzira* batzuen aldameneko hiriarren erreferentziaren garrantzia azpimarratu du. Bestalde, A. Sagarnak, kasu askotan zentzu komunaz baliatu beharra dagoela azpimarratu du, nongo aintzira den azaltzen duen *-ko/-go* kasu atzizki hori kendu edota ipintzeko.

**5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Proposamenak aurkeztea.** Euskaltzaindiaren Hiztegiko Batzorde Ahaldunduan lantzen diren gaietan Andoni Sagarna Iker Sailburuak, Euskaltzaindiaren Hiztegian hartu diren zenbait erabakiren berri eman du, lana errazteko asmoz. Alde batetik, «Sin.» guztiak «Ik.» bihurtu dira. Bestetik, Jakite arloko marka batzuk aldatu dira: Geom > Mat.; Gram. eta Fon. > Hizkl.; Finantz. > Ekon. Ontzat eman da.

Gainera, *taxonak* jartzeko orduan, sinonimo guztietan izen hori ez errepikatzen, berori sarrera nagusian besterik ez da ezarriko, hots, definizioa daraman hitzean.

Osoko Bilkurari baimena eskatu zaio lehen itzuliko hitzen definizioetan beharrezkoak diren hitzei sarrera emateko, beroriek bigarren itzulian Osoko Bilkurak onartutakoak baldin badira. Onartua izan da era horretako hitzak modu progresiboan erabiltzea.

**6. Hiztegi Batua. Zalantzazko hitzak.** Ondoren, Iker Sailburuak berak Hiztegi Batuko zalantzazko hitz batzuk aurkeztu ditu, finkatzeko: *pastikatu*, *ferafutro*, *flan*, *budin frantses(-)belar* utzi dira, kasu batzuetan dagozkion esangura zehatzez osatzeko.

## 7. Iparraldeko ordezkaria

B. Oihartzabalen gaixotasun-ezintasunagatik sorturiko hutsunea betetzeko, Zuzendaritzak, interesatuekin mintzatu ondoren, Aurelia Arkotxa andrea onartu du euskaltzainburuorde, eta Xarles Videgain jauna, aldiz, Baionako bulegoaren arduradun. Horretara proposatu zaie osoko bilkuran euskaltzain guztiei eta holaxe berrestea erabaki da.

## 8. Esku artekoak

### 8.1. Euskaltzaindiaren 2010ko batzar-egutegia

Datorren urteko lehen zazpi hilabeteetako batzarren egutegi proposamena aurkeztu eta, eztabaidatu ondoren, honela onartu da:

Urtarrilak 29: Donostian. Hileko batzar arrunta eta hilberri-txostenak.

Otsailak 26: Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Martxoak 26: – Donostian. Hileko batzar arrunta.

– Donostian. Miren Lourdes Oñederraren sarrera-hitzaldia.

Apirilak 30: Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Maiatzak 28 Aramaion. Hileko batzar arrunta.

Maiatzak 29 Aramaion. Patxi Uribarrenen sarrera-hitzaldia.

Ekainak 25: Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Uztailak 23: Donostian. Hileko batzar arrunta.

Datozen hilabeteetan zehar, Zuzendaritzaren asmoa da, jada ibilian diren egitasmoen arduradunekin mintzatu ondoren, horiek euskaltzainen aurrean banan-banan azaldu eta informazioa ematea, guztiok lanen berri izateko.

### 8.2. J. J. Zearretaren eta Euskaltzaindiko beste kide batzuen hilberri-txostenak.

Oraintsu zendu den Juan Jose Zearretaren hilberri-txostena egiteko, zuzendaritzak Jose Luis Lizundia proposatu du. Proposamena ontzat eman da.

Era berean, Euskaltzaindiko azken hildakoenak ondokoek egingo dituzte:

Antonio Zavalarena, Jose Mari Iriondok.

Santiago Ezkerrarena, Andres Iñigok.

Roger Idiart-ena, Jean-Louis Davantek.

Mikel Atxagarena, Mari Karmen Garmendiak.

Yuri Zytsar-ena, Xabier Kintanak.

**8.3. Kudeatzaile berria.** Oraintsu arte kudeatzaile izan den Juan Jose Zearretaren lekua betetzeko, horren ordezkoa hautatzeko prozedura eta baldintzak, Zuzendaritzak landu eta aurkeztuko dituela esan du Euskaltzainburuak, ondoren osoko bilkurak onar ditzan.

Era berean, A. Urrutiak adierazi duenez, hutsune larria gertatu arren, eguneroko lanari aurre egin behar zaio, eta horretarako, kudeatzaile berria hautatu arte, Euskaltzainburua hitzarmen, lege-kontu eta bestelako harremanez, argitalpenez, etab. arduratuko da; J.L. Lizundiak, aldiz, arazo ekonomikoen ardura eramanen du; X. Kintanak eta Pello Telleriak administrazio eta bulegoen kontrola hartuko dute, eta A. Sagarna, A. Iñigo eta Aurelia Arkotxa bakoitza bere Ordezkaritzako lanaz arduratuko dira.

J.L. Lizundiak azaldu du zer nolako aurreikuspenak zerabiltzan gogoan J.J. Zea-  
rretak, etapa berri bati hasiera emateko. Gertaerak egoera txarrean hartu gaituela  
eta ikaratzekoa ez den arren, arduratzekoa bederen badela. Krisi ekonomikoak eta  
egoera politikoak ere beren eragina izan dute. Edonola ere, orain arteko egoera  
ekonomikoa konpontzen eta kitatzen saiatzen ari da, eta, horretarako, batzar die-  
tak, txostenak etab. ordaintzen dihardu.

Euskaltzainburuak, berriz, hemendik aurrera eman beharreko pausoak zeintzuk  
izan daitezkeen azaldu du, eta bestelako hitzarmenak beharko direla, proposamen  
berriekin. Era berean, informazioa eman du Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko,  
Gipuzkoako eta Arabako diputazioekin eta Madrileko Gobernu Zentralarekin egi-  
niko gestioez.

J. L. Lizundiak hitzarmen egokiagoa lortu behar dela esan du. Pello Salabururen  
galderari erantzunez, A. Iñigok argitu du, Nafarroako Parlamentuak euskararako  
hamar mila euro proposatu zituela, baina geroago 149.000raino igo dituela Nafa-  
rroako Gobernuak.

### 9. Azken ordukoak

Banaturiko liburuak:

- *Erronkari eta Ansoko toponimiaz* (Mendaur – V). Juan Karlos Lopez-Mugartza.
- *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* (Mendaur – VII). Edu Ze-  
laieta Anta.
- *Euskera*, 2008, 3

Batzarra arratsaldeko 13,15ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria